ANEXO I

FORU ARAU PROIEKTUA, ZEINAK BERRESTEN BAITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIKO LANKIDETZA HITZARMENA, EMSIME" APLIKAZIOAREN USTIAPEN BATERATUA EZARTZEKOA, KUDEAKETA MUSEOGRAFIKOA EGITEKO ETA WEBGUNEAREN BIDEZ INFORMAZIOA TRUKATZEKO.

Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legeak 3. artikuluan arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak museoen eta bildumen arloan dituen eskumenak, eta eskumen horien artean honako hauek daude: Euskadiko museo eta bildumen funtsen inbentario orokorra antolatzea eta eguneratuta edukitzea; sistema informatiko bakarra sarean ezartzea sustatzea eta gidatzea, eta ondarearen dokumentazio, ikerketa eta hedapen lanak bultzatzea. Bestalde, lege horrek arautzen dituen funtzioak betetzeko, museoek eta bildumek beren funtsak inbentarioan sartuta eduki behar dituzte.

Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bidez, EMSIME izeneko aplikazio informatikoa garatu du eta haren jabea da. Aplikazio horren helburua da Euskadiko museo eta bildumen funts museografikoak dokumentatzea, bai eta funts horien kudeaketarekin lotutako zeregin eta jarduera guztiak egiten laguntzea ere. Aplikazio honen bidez funts horiek sailka daitezke egilearen generoa sartuz, eta bilaketak sexuaren arabera bereizita egin daitezke.

Dokumentazioak, neurri handi batean, hizkuntza eta taula normalizatuak ditu oinarri; horregatik, tresna horiek kudeatzea funtsezkoa da EMSIMEren helburuak lortzeko, hau da,

PROYECTO DE NORMA FORAL DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA ESTABLECER LAS BASES EN MATERIA DE EXPLOTACIÓN CONJUNTA DE LA APLICACIÓN "EMSIME", PARA LA GESTIÓN MUSEOGRÁFICA E INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN A TRAVÉS DE LA WEB.

La Ley 7 /2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi, regula en su art. 3 las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de museos y colecciones, y entre esas competencias se encuentran las de organizar y mantener actualizado el inventario general de fondos de museos y colecciones de Euskadi; promover y liderar el establecimiento en red de un único sistema informático, así como, impulsar las labores de documentación, investigación y difusión del patrimonio. Por otra parte, los museos y colecciones para cumplir con las funciones que regula la citada Ley deben tener inventariados sus fondos.

El Gobierno Vasco a través del Departamento de Cultura y Política Lingüística ha desarrollado y es propietario de una aplicación informática denominada EMSIME cuya finalidad es la de documentar los fondos museográficos de los museos y colecciones de Euskadi, además de facilitar la realización de todas aquellas tareas y actividades relacionadas con la gestión de los mismos. Esta aplicación permite catalogar dichos fondos introduciendo el género de la autoría, así como realizar búsquedas desagregadas por sexo.

La documentación se apoya en gran medida en la existencia de lenguajes y tablas normalizadas, por ello la gestión de estos instrumentos es fundamental para conseguir

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://egoitza.araba.eus/izapidetu/sgvfcove/
Egiaztapen kodea Código de verificación
52fu-8w7R-47ZK-ZbpC

funts museografikoen inbentario orokorra egitea eta linean jartzea eta Euskadiko museoek eta bildumek gordetzen duten ondarearen katalogo kolektiboa sortzea.

los objetivos de EMSIME, que son la elaboración y puesta en línea del inventario general de los fondos museográficos y la generación del catálogo colectivo del patrimonio que albergan los museos y colecciones de Euskadi.

EMSIME museoek eta bildumek gordetzen dituzten kultura ondasunen kudeaketa erraztu dezakeen tresna da, bai eta museoetako museo, dokumentu eta administrazio funtsen katalogazio eta tratamendu teknikoko prozesuak bateratzen eta horien artean informazioa trukatzen lagundu ere.

EMSIME es una herramienta que puede facilitar la gestión de los bienes culturales que conservan los museos y colecciones, así como contribuir a la unificación de los procesos de catalogación y tratamiento técnico de los fondos museográficos, documentales y administrativos de los museos, y al intercambio de información entre los mismos.

Duela urte batzuetatik hona, Arabako Foru Aldundiko sareko museoek (Arte Ederren Museoa, Arma Museoa, Arkeologia Museoa, Fournier Karta Museoa eta Natura Zientzien Museoa) tresna informatiko hori erabiltzen dute bildumak kudeatzeko eta aztertzeko, eta egiaztatu da eraginkorrak eta erabilgarriak direla bildumak katalogatzeko eta kudeatzeko, horixe baita haien helburu nagusia, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko museo eta bildumen lan-ingurune komun bat sortzeko ere

Desde hace varios años, los museos de la red de la Diputación Foral de Álava, integrada por el Museo de Bellas Artes, el Museo de Armería, el Museo de Arqueología, el Museo Fournier de Naipes y el Museo de Ciencias Naturales, utilizan dicha herramienta informática para la gestión y análisis de sus colecciones, habiéndose comprobado su eficacia y utilidad, tanto para la catalogación y gestión de las colecciones, que constituye su principal finalidad, como para la creación de un entorno de trabajo museográfico común a los distintos museos y colecciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiak lankidetza hitzarmen bat sinatu nahi dute EMSIME aplikazioa batera ustiatzearen arloko oinarriak ezartzeko.

En virtud de lo anterior, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Álava están interesadas en suscribir un convenio de colaboración para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación EMSIME.

Hitzarmena bi erakundeen arteko lankidetza esparruan sartzen da, kultura ondarea babestearen eta zabaltzeko politiken arloetan, zehazki. Horretarako, museoak eta bildumak kudeatzen lagunduko duten eta datuak trukatzea eta webgunearen bidez jendaurrean zabaltzea ahalbidetuko duten sistema teknikoak ezarri eta mantenduko dira.

El convenio se inscribe en el marco de colaboración en materia de cultura entre ambas Instituciones, en concreto en lo referente a las políticas de protección y difusión del patrimonio cultural a través de la implantación y el mantenimiento de sistemas técnicos que ayuden en la gestión de los museos y colecciones y que permitan el intercambio de datos, así como su difusión al público a través de la web.

Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak 6. artikuluan xedatzen duenez, Batzar Nagusiei dagokie Eusko Jaurlaritzarekiko, Estatuarekiko, eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo probintziekiko hitzarmenei buruzko Foru Aldundiaren proposamenak berrestea.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 6.1.b).3 artikuluak Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluari ematen dio "Eusko Jaurlaritzarekin, estatuarekin nahiz beste lurralde historiko batzuekin edo beste autonomia erkidego edo probintzia batzuekin egindako hitzarmenei" buruzko proposamenak onetsi eta Batzar Nagusiei bidaltzeko eskumena**.**

Horren arabera,

Artikulu bakarra

Berretsi egiten da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko lankidetza hitzarmena, "EMSIME" aplikazioa batera ustiatzeko oinarriak ezartzekoa, kudeaketa museografikoa egiteko eta webgunearen bidez informazioa trukatzeko, Gobernu Kontseiluan adostutako moduan.

La Norma Foral de 7 de marzo de 1983, sobre Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, dispone en su artículo 6 que corresponde a las Juntas Generales la ratificación de las propuestas de la Diputación Foral relativas a convenios con el Gobierno Vasco o el Estado, con otros Territorios Históricos, Comunidades Autónomas o Provincias.

Por su parte, el artículo 6.1.b).3 de la Norma Foral 10/2023, de 15 de marzo, de gobierno, organización y régimen jurídico de la Diputación Foral de Álava atribuye al Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava la competencia para aprobar y remitir a las Juntas Generales para su ratificación, las propuestas referidas a “convenios con el Gobierno Vasco o el del Estado, con otros Territorios Históricos, Comunidades Autónomas, provincias.

En su virtud,

Artículo Único

Se ratifica el Convenio de colaboración a suscribir entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación “EMSIME”, para la gestión museográfica e intercambio de información a través de la web, en los términos acordados por el Consejo de Gobierno.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.13 08:34:40 Z